# Aritzkaria

2023-2024 | 29. zenbakia




IKUSI MAKUSI: JOLASTU GUREKIN!! >> 6-7

BAZATOZ? BAGOAZ! >> 12-13

IÑIGO ARITZA ETA ESKOLAZ KANPOKOEN MARKO INTEGRALA >> 14-16

# AURKIBIDEA


2 JUNTA

3 ZUZENDARITZA

4 LANGILEAK

5 HONELA SARTU, HONELA ATERA

6-7 IKUSI MAKUSI: JOLASTU GUREKIN!

8-9 MATEMATIKA ESKUETARA!

10-11 KURRIKULUMAREN EGOKITZAPENA

12-13 HEZKUNTZA MARKO OROKORRA

14-16 HIZPRO

17-19 ORIENTAZIOA

20-21 TALDE ARGAZKIAK

22-23 IKASTURTEKO ARGAZKIAK


# JUNTA

Iñigo Aritza Ikastola bokazio publikoz jaio zen duela bost hamarkada. Proiektu hau sendotuz eta egonkortuz joan da eta 2008. urtean Txioka Haur Ikastola sortu zen. Gaur egun, gure hezkuntza proiektua 0-16 urte bitarteko haur eta gazteak barne hartzen ditu. Hezkuntza oinarrizko eskubide unibertsala da eta ildo horretan, ikasle guztiak onartu eta hezteko erantzukizuna daukagu. Halere, irabazirik gabeko erakundea izanik, ez dira gutxi gainditu beharreko oztopoak.

Ikastolak eskaintzen duen hezkuntza proiektua propioa eta berritzailea da, konpetentzietan oinarrituta dagoena, teknologia berrietan trebatua eta kalitatezkoa, besteak beste. Euskara eta euskal kulturaren transmisioan ezinbesteko eragile gara gure eskualdean. Zentzu horretan, inguruko hainbat eragile eta erakunderekin elkarlanean aritzen da proiektu desberdinak garatuz.

Zalantzarik gabe, Iñigo Aritzak gure herriari egiten dion ekarpena ezinbestekoa da gizartearen garapenerako. Horregatik, eta zailtasunak zailtasun, gure herriarekin daukagun konpromisoari eutsi behar diogu.

Iñigo Aritza Ikastola nació hace cinco décadas con una vocación pública. Este proyecto ha ido fortaleciéndose y asentándose y en 2008 se creó Txioka Haur Ikastola. Hoy en día, nuestro proyecto educativo acoge en él a niños/as y jóvenes de entre 0 y 16 años. La educación es un derecho universal y de la misma manera, tenemos la responsabilidad de acoger y educar a todo el alumnado. De todos modos, no son pocos los obstáculos que hay que salvar siendo una entidad sin ánimo de lucro.

El proyecto educativo que oferta la ikastola es propio y novedoso, basado en las competencias, de calidad y que instruye en las nuevas tecnologías, entre otros. Somos impulsores indispensables en la transmisión del euskara y de la cultura vasca en nuestra zona. En ese sentido, trabajamos conjuntamente con distintos impulsores y organizaciones desarrollando distintos proyectos.

Sin duda, la aportación que hace a nuestro pueblo Iñigo Aritza es indispensable para el desarrollo de la sociedad. Por ello, a pesar de las dificultades, debemos mantener nuestro compromiso con nuestro pueblo.


**Argitaratzailea:** Iñigo Aritza Ikastola
**Diseinua eta maketazioa:** GK
**Testuak, itzulpenak, argazkiak eta koordinazioa:** Iñigo Aritza Ikastola



**IÑIGO ARITZA IKASTOLA**
San Pedroko bidea, 16 | 31800 Altsasu
ikastola@inigoaritza. eus
**Idazkaritza ordutegia:** 7:30-13:00 / 14:00-17:30

# ZUZENDARITZA

Nondik gatoz? Eta are garrantzitsuagoa; nora goaz? Askotan buruan bueltaka izan ditugun galderak dira. Berriak? Ez. Baina gogoeta egiten dugun bakoitzean ezinbestean mahaigainean jarri beharrekoak, are gehiago egun bizi dugun gizarte aldakor eta presaz beteriko honetan.

Egindako bideak erakusten digu zer egiteko gai izan garen eta egunerokoan ikastolen ereduak eskaintzen digun egitura eta filosofiari esker, elkarlanaren bitartez etorkizunean loratuko direla gaur amesten ditugun horiek.

Irakaskuntzan gabiltzanok ezin ditugu ametsak ahaztu, izan ere, gure esku artean izaten ditugun ikasleak izango baitira etorkizun horretako ametsak egi bilakatzeko arduradunak. Hortaz, nolako ikasleak nahi ditugu? Behin eta berriz galdetu diogu hau geure buruari. Eta horren barruan, ondoko galderan dugu begirada jarria: nolako pertsonak nahi ditugu? Ikasgelan, ikasgelatik kanpo, gizartean eta herrigintzan murgildutako pertsonengan dugu egunero irakasleok zein familiok eragina. Beraz, ez da nolanahikoa gure amets eta erronka.

Batzuentzat ikasleak direnak eta beste batzuentzat seme-alabak direnak erdigunean jarri eta norabide berdinean arraun egitea da Iñigo Aritza Ikastola osatzen dugunon eguneroko erronka. Ikasleen ekosistema, ikuspuntu eta ardatz desberdinetatik abiatuz, horiek guztiak elkarrekin elikatzea dugu helburu. Horretan ibili gara, horretan gabiltza eta etorkizunean ere ibiliko gara, elkarrekin eta elkarlanean.

Jakina da metodologia, filosofia, ikuspuntu eta esku-hartzeetan aitzindariak izan direla Ikastolak. Egun ere lan horretan dihardugu etorkizuneko gizartea osatuko duten pertsonak erdigunean jarriz; eta horiek bizitzarako behar dituzten konpetentzia eta balioetan, norbanakoen garapenean hain garrantzitsuak diren 0-16 urte bitarteko etapa guztietan, modu integral batean heziz.



¿De dónde venimos? Y lo que es más importante; ¿a dónde vamos? A menudo nos retumban estas preguntas en la cabeza. ¿Son nuevas? No. Pero cada vez que reflexionamos es indispensable ponerlas sobre la mesa, más en los tiempos que corren en una sociedad cambiante y apresurada.

El camino recorrido nos recuerda de qué somos capaces y gracias a la estructura y a la filosofía que nos ofrece a diario el modelo de ikastola, a través del trabajo conjunto los que hoy son sueños florecerán en el futuro.

Las personas que trabajamos en la educación no podemos olvidar los sueños, ya que los/as alumnos/as que tenemos entre nuestras manos serán los responsables de materializar esos sueños. Por lo tanto, ¿qué tipo de alumnado queremos? Una pregunta sobre la que hemos reflexionado más de una vez. Y dentro de ella, tenemos puesta la mirada en la siguiente pregunta: ¿qué tipo de personas queremos? Tanto el profesorado como las familias influimos a diario en las personas dentro del aula, fuera de ella, en la sociedad y en el hecho de hacer pueblo, de hacer comunidad.

Colocar en el centro las que, para algunas personas son alumnos/as, para otras, hijos/as, y remar en la misma dirección es el reto diario de las personas que conformamos Iñigo Aritza Ikastola, alimentando desde puntos de vista y ejes distintos pero conjuntamente su ecosistema. Lo hemos hecho, lo hacemos y en el futuro también seguiremos haciéndolo, conjuntamente e interactuando.

Es sabido que hemos sido pioneros en las ikastolas en metodología, filosofía, perspectiva e intervenciones. Hoy en día también estamos en ello poniendo en el centro a las personas que conformarán la sociedad del futuro; educándolas de manera integral proporcionándoles las competencias y los valores que necesitan en la vida, en todas las etapas comprendidas entre los 0 y 16 años que tan importantes son para el desarrollo individual.

Cafés AKEITA

AKELARRE TABERNA
Zumalakarregi 7
TXIKI TABERNA ALTSASU
San Pedro auzoa 14
Plater konbinatuak eta ogitartekoak

AS Alain Senar
akademia • academia
- EUSKARAZ ETA ERDARAZ / EN EUSKERA Y CASTELLANO
- ASIGNATURA GUZTIAK / TODAS LAS ASIGNATURAS
- TALDE TXIKIAK / GRUPOS REDUCIDOS
D.B.H/ BATXILERGOA/ UNIBERTSITATEA/ FP I eta II...
E.S.O/ BACHILLER/ UNIVERSIDAD/ FP I y II...
Ingeniari Industriala / Ingeniero Industrial
Egubera / Solana 14, Altsasu-Alsasua
Tel. 606053076



## ADMINISTRAZIOA
Aitziber Etxaiz
Karmele Garziandia

## GARBITZAILEAK
Laura La Torre
Ainhoa Mundiñano
Pili Rellán

## GARRAIOA
Amaia Armendariz
Edurne Otxoa

## JANTOKIA
Esther Larrion

## TXIOKA
Maitane Agirre
Patricia Fernandez
(Beatriz Mayo)
Jasone Mujika
Uxue Ondarra
(koordinatzailea)

## TXIOKAKO GARBITZAILEAK
Rakel Iriarte
Sara Zufiaurre

## ZUZENDARITZA
Leire Baztarrika Sanz

## ORIENTATZAILEA
Isabel Salegui

## ETAPEN ZUZENDARIAK
Amagoia Agirre (HH)
June Bengoetxea (LH)
Sonia Lizarraga (DBH)

## HAUR HEZKUNTZA
Amagoia Agirre
Ainara Aizpurua
Olatz Álvarez
Naroa Goikoetxea

## LEHEN HEZKUNTZA
Maitane Altzelai
Edurne Amillano (Ingelesa)
Adriana Antsotegi
(Garazi Urrestarazu)
Garbiñe Argüelles
June Bengoetxea
Nahikari González
Jon Lagos
(Gorputz Hezkuntza)
Pili Olasagarre
Bakartxo Presa

## DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
Mikel Agirre
Ekhi Etxeberria
Erkuden Flores
Manu Gómez
Jon Lagos
Sonia Lizarraga
Amaia Orbegozo
Mirari Ortega
Olatz Unanue

## ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA
Arrate Argüelles
Irati Flores
Artzanegi Martin
Amaia Zurriarian

## ZAINTZAILEAK
Irati Ayerbe
Saioa Lizarraga



























# GERO ARTE, IKASTOLA!





Gure bidea bukatzear dago. 15 urte ondoren, iritsi da bide berri bat amesteko momentua, baina gure leloak esaten duen bezala, egindakoa ahaztu gabe. Bide honetan askotarikoak izan dira gure sentimenduak, baina horiek ere elkarrekin kudeatzen ikasi dugu eta bizipen horiei guztiei esker elkar hobeto ezagutu dugu.

Oraindik ere ezin ditugu ahaztu gure gurasoen besoak uzterakoan botatzen genituen negarrak, baina ezin dugu ahaztu ere hezitzaile guzti haien goxotasuna eta pazientzia. Batzuk Txiokan eman genituen gure lehen pausoak eta Txiokan ikasi genituen gure euskarazko lehen hitzak. Olaztiar eta Ziordiarrek, aldi berean, Olaztiko ikastolan hasi zuten euren ibilbide hori. Gogoan dugu nola elkartzen gintuzten gure taldeko lehen argazkiak ateratzeko, eta gogoan dugu elkarketa horiek sorrarazten zizkiguten urduritasuna. Zein momentu goxoak haur hezkuntzakoak: aiton-amonen bisitak, baratzaren zainketa, liburuen irakurketak, salto gela, masajeak, bideo gelako proiekzioak... Zenbat bizipen gure irakasleekin.

Lehen urteak pasata, autobusa hartu genuen mendira igotzeko. Ai ene autobuseko joan etorrien esperientziak!!! Zerbaitean bereziak izan baldin bagara, gure folklorearekiko zaletasunean izan gara. Zenbatean girotu dugun autobusa burukomin eta hasarreak sorrarazteraino!!! Sardina bat, "*Navarra tiene cadenas*"...

Eta ezin ahaztu gure Iñigo Aritza Ikastolako hariztian emandako atsedenaldiak. Zenbat esperimentazio eta zenbat hartu-eman naturarekin: errekak zaintzen, garbitzen, urari bideak irekitzen, presak egiten... Ondoren, txabolen garaia iritsi zitzaigun eta bertan gure "txorongo taberna" sortu eta saltzaile lanetan ibili ginen, eta adinean gora egin ahala, atzeko egituretan trapezistak bihurtu ginen.

Halere, gure ikastolako ibilbideak guregan utzitako aztarnak egonaldietatik ere badatoz. Gurekin eramango ditugu gau horietan bizitakoak. Zuhatza, Izaba, Zugarramurdi, Bardeak eta Askizuk osatu dute gure ibilbidea. Batzuk urrunago ditugu, baina Askizun egindako bidai autogestionatutik daramagu esperientziarik polittenetakoa, "*Itsasoari begira*" elkarrekin abesten egon baikinen ilunabarraz gozatzen eta kontu txikiak elkarri kontatzen. Zein garrantzitsuak diren talde kohesiorako egonaldi horiek eta bertako bizilagunekin euskaraz bizitzeko aukera izan genuen, gainera.

Azkizu aipatuta, ikastolako gure azken etapa ezin aipatu gabe utzi. Ziur gaude irakasleen artean gure aztarna utzi dugula. Talde bizia eta alaia izan da gurea eta hori agerian geratu da hainbat eta hainbat momentutan. Azken etapa honetan gainera, Ikastolako 50. urteurrena ospatu genuen, eta gure betiko irakasleekin elkartzeak sentimenduak berpiztu zizkigun. Iaz, berriz, Ikastolako Eguneko antolaketan burubelarri ibili ginen, eta hobetzeko asko izanda ere, elkarlanean eguna aurrera atera genuen. Beraz, era batera edo bestera banatuta hasi genuen gure ibilbidea, baina irakasleak eta gurasoak bidelagun, talde moduan bukatu dugu eta hori erakutsi dugu aipatu ditugun ekintzekin eta erakutsiko dugu gure azken jaialdi eta ikasbidaiarekin.

*Eskerrik asko bidelagun izandako guztiei: Bide berri bat amesten, egindakoa ahaztu gabe!!!*













# IKUSI MAKUSI:
# JOLASTU GUREKIN!

**Batzuek jolasa denbora galtze gisa gutxiesten dute, balioa gutxiestea haurren garapenean duen eginkizun erabakigarriari kasurik ez egitea da. Jolasa ez da entretenigarria soilik; ezinbestekoa da ikasteko. Jolasa mespretxatu beharrean, haren garrantzia nabarmendu behar dugu, haurren hazkuntza integralerako bitarteko baliotsutzat hartuz.**




Jolasak duen garrantzia funtsezkoa da haurren garapen integralerako, eta honek hazkunde fisikoan, kognitiboan, komunikatiboan, sozialean eta emozionalean eragina duten hainbat dimentsiori heltzen die.

Haurraren garapena eta bilakaera aberasten dira jolasaren bidez, hazkunde emozional eta soziala bultzatzen duten esperientziak eskaintzen baititu. Jolaseko elkarreraginetan, haurrek emozioak partekatzen, lankidetzan aritzen eta ulertzen ikasten dute, eguneroko bizitzarako funtsezkoak diren gizarte-trebetasunak indartuz.

Hizkuntzaren eta komunikazioaren ikuspegitik berriz, jolasak testuinguru aberatsa eskaintzen du, haurrek hizkuntza bereganatu eta erabili dezaten. Izan ere, elkarreragin ludikoetan, ikasleek hizkuntza-trebetasunak garatzen dituzte ideiak adieraztean, rolak negoziatzean jolas sinbolikoan eta jokoaren arauak ulertzean jolas arautuetan.

Garapen kognitiboaren begiradatik, jolasak irudimena eta sormena estimulatzen ditu, eta hauek funtsezkoak dira problemak ebazteko eta pentsamendu abstraktua lortzeko. Gai-











nera, adinean gora doazen heinean, matematikaren logika ulertu ahal izateko ezinbestekoak izango dira. Jean Piaget psikologo konstruktibista ezagunak dio, jolasa, haurrek kontzeptuak barneratu eta ezagutza eraikitzeko modu bat dela. Jolasaren barruko erronkei aurre egitean, pentsamendu kritiko eta logikoko trebetasunak garatzen dituztelako haurrek.

Ikuspegi konstruktibistak, azpimarratzen du ikaskuntza prozesu aktiboa dela eta haurrek beren ezagutza esperientzia esanguratsuen bidez eraikitzen dutela. Jolasaren mundua guztiz bat dator ikuspegi horrekin, aukerak ematen baititu haurrek inguruko munduaz duten ulermena aztertu, ulertu eta eraiki dezaten.

Guk argi dugu, jolasak onura eta plazera sortzen dizkio haurrari, kontuan izanik, material egoki eta anitzak eskaintzeak, espazio seguru eta aberatsekin batera, sormena eta esplorazioa sustatzen dituela. Bide horretan ikastolaren eta familiaren arteko lankidetza funtsezkoa dugu haurren ongizatea bermatzeko. Lankidetza horrek gainera indartu egingo du ikaskuntza ez dela ikasgelara mugatzen, baizik eta haurraren gertuko inguruneetan ere elikatzen dela.

# IKUSI MAKUSI: ¡JUGAD CON NOSOTROS/AS!"

**Algunos/as menosprecian el juego como pérdida de tiempo y despreciar el valor es ignorar su papel decisivo en el desarrollo infantil. La importancia del juego es fundamental para el desarrollo integral de los niños y niñas, lo que aborda diferentes dimensiones que afectan al crecimiento físico, cognitivo, comunicativo, social y emocional.**



El juego enriquece el desarrollo y la evolución del niño/a, aportando experiencias que favorecen el crecimiento emocional y social. En las interacciones lúdicas, los niños/as aprenden a compartir, a cooperar y a comprender las emociones, potenciando las habilidades sociales que son clave para la vida cotidiana.

Desde el punto de vista lingüístico y comunicativo, el juego ofrece un contexto enriquecedor para que los niños y niñas desarrollen habilidades lingüísticas en la expresión de ideas, en la negociación de roles en el juego simbólico y en la comprensión de las reglas del juego en los juegos reglados.

Desde la mirada del desarrollo cognitivo, el juego estimula la imaginación y la creatividad, esenciales para la resolución de problemas y el pensamiento abstracto. El conocido psicólogo constructivista Jean Piaget sostiene que el juego es una forma en la que los niños/as interiorizan conceptos y construyen conocimiento, desarrollando habilidades de pensamiento crítico y lógico. El enfoque constructivista subraya que el aprendizaje es un proceso activo en el que los/as niños/as analizan, comprenden y construyen el mundo que les rodea a través de experiencias significativas.

Lo tenemos claro; el juego en la infancia aporta beneficios y placer al niño. Por ello, queríamos enfatizar la colaboración entre la ikastola y la familia para garantizar el bienestar de los niños/as. Porque el juego no se limita al aula, sino que también se nutre en entornos cercanos al niño/a.


Del Reino
CONSERVAS

EKIN
moda
Intxostia zeharkalea, 10 · Altsasu
948 56 27 56

Ford Gabirondo
Vehiculos de ocasion
948 563 300
Altsasu
www.fordgabirondo.com

Garaje Urbasa S.A.
OPEL
HYUNDAI
Avda. Vitoria ALSASUA T. 948 562 456

gautxori
taberna
Altsasu

GRABOLAB
ROTULOS A MEDIDA-SERIGRAFIA TEXTIL
GRABADO CON DIAMANTE Y LASER
REGALO DE EMPRESA
sakanarotulos@gmail.com
Pol. Ind. Ondarria, 11
31800 Alsasua (Navarra)
Tel. 636 17 69 60
948 46 91 75

HIRUON HARATEGIA
Frontoi zeharbidea, Altsasu
948 467 677 • 658 509 412

# MATEMATIKA ESKUETARA!



Matematiken mundua zabala, anitza eta aberatsa da, gure bizitzetan etengabean erabiltzen duguna; beste modu batean esanda, matematikaz inguratua gaude. Ondorioz, Iñigo Aritza Ikastolan gure ikasleek matematikak modu positiboan bizitzeko bidea jorratzen saiatzen gara, ezaguna den horretatik eta gertutasunetik hasita abstrakziora pasatzeko bide hori modu egokian eraikitzen saiatzen garelarik, hain zuzen ere.

Jakina da, pertsona askok matematikak desatsegin edo gauza iluna bezala bizi izan dituztela, eta hezkuntzako kideoi dagokigu ideia honekin haustea. Matematika denon eskuetan jarri behar dugu, ikasleak etorkizuneko helduak direnean bizitzari modu egokian aurre egin diezaioten; konpetentzia logiko matematikoa garatzen irakatsi behar diegu.

**Guzti hau nola egiten da? Hasteko, matematika eskuetara ekartzen!**

Matematika abstraktua da eta ikasle bakoitzak bere prozesua behar du abstrakzio maila hori lortzeko. Horretarako bide ezberdinak eskaini behar dizkiegu ikasleei. Konpetentzia matematikoa piramide batean oinarritzen badugu, **puntan liburua edo fitxa** izango genuke. Esate baterako, ikasle batek jarduera bat ulertzeko edo modu kontziente batean ebazteko, lehenago beste prozesu batzuk **BIZI** behar ditu.

**Piramidearen oinarrian, jolasa** dago. Aurretik aipatu bezala, matematikaz inguratuak gaude, beraz, jolasten oinarri matematikoak ikasten hasten dira; jakintza batzuk eraikitzen hasten dira, Iñigo Aritza ikastolan Haur Hezkuntzan nabarmen garatzen dugularik. Hurrengo mailan, **jolas bideratua**goak izango genituzke. Alegia, ikasleei material espezifikoagoak eskaintzen dizkiegu helburu zehatzagoekin, gurean, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1.go zikloan garatzen dugu.

Hirugarren maila, zehazki landu nahi diren **jakintzak garatu ahal izateko material manipulatiboa eskaintzean** datza. Hots gure zenbakuntza sistema hamarrean oinarritzen dela ulertarazteko, ikasleek materiala manipulatu eta bibentzialki bizi behar dute beraientzat oso abstraktua den kontzeptu hori barneratzeko. Hamarreko multzoak egin eta berregin behar ditugu, modu anitzetan. Hirugarren fase hau, gehienbat lehen hezkuntzako 1.go eta 2.zikloan jorratzen dugu. Aipatutakoa garatzeko gure geletan erabiltzen dugun materiala anitza da: Txotxak, Hamarreko, Bateko eta Ehunekoak, Polikuboak, Erregletak, Bloke Geometrikoak, Bloke logikoak, naturatik eratorrikoa materialak etab luze bat.

Ezin dugu ahaztu, ikasleak liburuaren edo paperaren aurrean jartzen ditugunean, hauek beraien errealitatean oinarritutako gaiekin harremanduak egon behar dutela ere. Modu honetan, erabilgarritasun bat eta zentzua ematen diogulako matematikari. Ikastolen elkarteak sortutako ikas materialak bide hau jorratzen laguntzen digu, KIMU eta EKI proiektuak hain zuzen ere, aurretik aipatutako printzipioetan oinarritzen baitira.




# ¡LAS MATEMÁTICAS A LAS MANOS!




El mundo de las matemáticas es amplio y diverso; vivimos rodeados/as de matemáticas. En consecuencia, en la Ikastola tratamos que el alumnado viva las matemáticas de forma positiva, tratando de construir de manera adecuada el transcurso que pasa de lo conocido a la abstracción. Sabemos que muchas personas han vivido las matemáticas como algo desagradable u oscuro, y a los/as profesionales de la educación nos toca romper con esta idea.

**¿Cómo se hace todo esto? ¡Para empezar, trayendo las matemáticas a las manos!**

Las matemáticas son abstractas y cada alumno/a necesita su propio proceso para alcanzar esos niveles de abstracción. Si basamos la competencia matemática en una pirámide, **en la punta tendríamos el libro o la ficha**. Es decir, para que el alumnado entienda una actividad o la resuelva de una manera consciente, antes debe **VIVIR** otros procesos.

**En la base de la pirámide se encuentra el juego**. Como hemos comentado anteriormente, estamos rodeados/as de matemáticas, por lo que el alumnado empieza a aprender las bases matemáticas mediante el juego; en Iñigo Aritza esto lo desarrollamos en Educación Infantil. **En el siguiente nivel, están los juegos guiados**. Ofrecemos materiales más específicos con objetivos más concretos que desarrollamos principalmente en Educación Infantil y primer ciclo de Primaria.

**El tercer nivel consiste en proporcionar material manipulativo** para poder desarrollar los conocimientos que se quieren trabajar específicamente. Por ejemplo, cuando enseñamos nuestro sistema numérico decimal, el alumnado debe manipular el material y vivirlo para asimilar ese concepto que para ellos/as es muy abstracto. Tenemos que hacer y rehacer grupos de diez de múltiples maneras. Esta tercera fase la abordamos principalmente en 1° y 2° ciclo de primaria. El material que utilizamos en nuestras aulas es diverso: Palillos, Unidades, Decenas y Centenas, Policubos, Regletas, Bloques Geométricos, Bloques Lógicos, objetos cotidianos, etc.

No podemos olvidar que cuando proponemos ejercicios en libro o papel, las propuestas o actividades deben estar relacionados con su realidad cercana. De esta manera, damos sentido y una utilidad a las matemáticas. El material didáctico creado por la federación de ikastolas nos ayuda a abordar este camino, ya que los proyectos KIMU y EKI se basan en los principios anteriormente mencionados.












# EKI BERRIKUNTZAK/HOBEKUNTZAK ETA CURRICULUM BERRIA

## IKASTOLEN ELKARTEKO LEGEDI BERRIAREN BISIOA

Iñigo Aritza Ikastolan, Ikastolen Elkartearekin batera, urteak daramatzagu konpetentzietan oinarritutako hezkuntzan lanean, gure materialgintza eta egiteko moduak horretara bideratuz. Hori dela eta, gaur egungo LOMLOE legeak aurkezten duen planteamendua ez da berria gure ikastolan. Izan ere, 10 urtetako eskarmentua daukagu konpetentzien irakaskuntzan. Hortaz, gure kasuan, konpetentzien urte hauetako ibilbidearen ondoren, oinarri berdina mantenduz eta etengabeko formakuntza jasoz, hausnarketa kolektiboa bideratu eta doikuntzak egin zaizkio materialari **irakaskuntzan eta ebaluazio hezigarriaren markoan**.

**Ikaslearen irteera-profila** helburu izanda, oinarrizko jakintza batzuen lanketaren bitartez arloei dagozkien




**konpetentzia espezifikoak** garatzen dituzte ikasleek eta, aldi berean, era transbertsal batean, hezkuntza osoari dagozkion funtsezko konpetentzia horietan guztietan, **Hizkuntzaren Trataera Integrala** txertatuta dagoelarik.

Ildo horretatik, EKI proiektuaren eskutik konpetentzietan oinarritutako irakaskuntzan 2016-17 ikasturtean hasi baginen ere, orain EKI ikasmaterialetan egindako berrikuntzak ezagutu eta konpetentzietan oinarritutako irakaskuntza modu kolektibo eta bateratuan gelaratzen jarraitzeko DBH-ko irakasleok arlo guztietan formazioa jaso dugu.

Aipagarriak izan litezkeen berrikuntza esanguratsuenak honakoak dira: Alde batetik, arestian aipatutako hizkuntzaren ikuspegi integralak hartzen duen tokia litzateke. Izan ere, egungo gizartean beharrezkoa den komunikazio konpetentzia eta gure irteera profilean definituak ditugun gaitasunetara iristeko ezinbesteko osagaia da. Bestetik, ekintzailetza eta talde lana erdigunean jartzen ditu; horiek ere funtsezkoak baitira egunerokoan. Azkenik, ikasleek ikasketa prozesuaren kontzientzia izan dezaten eta ebaluazioa hezigarriaren markoan garrantzia berezia hartzen du auto-erregulazio eta autoebaluazioak horretarako tresnak eta baliabideak eskainiz.

Ikastolak argi izan du konpetentzien irakaskuntza dela egungo hezkuntza ereduaren oinarria, eta horretan jarraituko dugu orain artean bezala: gizarteko erronkei erantzuteko prest egongo diren norbanakoak hezten.







# INNOVACIÓN/MEJORAS EKI Y NUEVO CURRÍCULUM

## VISIÓN DE LA NUEVA LEGISLACIÓN DE LA FEDERACIÓN DE IKASTOLAS




En la Ikastola Iñigo Aritza, de la mano de Ikastolen Elkartea, llevamos años trabajando en la educación basada en competencias, orientando a ello nuestra elaboración de materiales y formas de hacer. Por lo tanto, el planteamiento que presenta la actual LOMLOE no es nuevo en nuestra ikastola. Sin embargo, se han tenido que realizar pequeñas adaptaciones manteniendo la misma base y recibiendo una formación continua en la enseñanza y en el marco de la **evaluación educativa.**

Teniendo como objetivo el **perfil de salida del alumnado**, a través de la elaboración de unos conocimientos básicos, el alumnado desarrolla las **competencias específicas** correspondientes a las distintas áreas y, al mismo tiempo, de forma transversal, en todas ellas en la competencia fundamental que corresponde a toda la educación, en la que se integra el **Tratamiento Integral de la Lengua**.

Las novedades más significativas que podrían resultar relevantes son: Por un lado, sería el lugar ocupado por la visión integral de la lengua antes mencionada. Y es que la competencia comunicativa es necesaria en la sociedad actual y es un componente imprescindible para llegar a las capacidades que tenemos definidas en nuestro perfil de salida. Por otro lado, pone en el centro el emprendimiento y el trabajo en equipo, fundamentales también en el día a día. Por último, para que el alumnado tenga conciencia del proceso de aprendizaje y en el marco de la evaluación educativa cobra especial importancia la autorregulación y autoevaluación proporcionando herramientas y recursos para ello.

La Ikastola ha tenido claro que la enseñanza de las competencias es la base del actual modelo educativo y en ello seguiremos como hasta ahora: educando a individuos dispuestos a responder a los retos de la sociedad.









# BAZATOZ? BAGOAZ!




Azaroaren 16 eta 17an Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak antolatutako jardunaldi pedagogikoen gaia, azken bi urteetan etxe barruan egindako gogoetaren ondorioz sortutako "Bazatoz" liburua izan zen, non Ikastolen hezkuntza marko orokor berria jasotzen den. Azpimarragarria da idazleen artean Iñigo Aritza Ikastolako irakasle eta zuzendaria izandako Esther Garaialde dagoela, besteak beste.

Hezkuntza marko orokor berri honek ikastolok hezkuntza ulertzeko dugun modua jasotzen du, ikastola guztientzako lurzoru komuna izango dena. Ondoren, hausnarketa prozesu baten bitartez, bakoitzak bere testuingurura egokitu beharko du eta bertatik bere hezkuntza proiektua horren baitan berreraikiko du.

2009ko markoarekin badditu hainbat desberdintasun. Duela bi hamarkada, konpetentzien zerbitzura zeuden edukien falta sumatzen zen. Orain, aldiz, konpetentzia horiek **pertsona-ereduari begira** jartzearen beharra ikusten da, hau da, ikaslearen **irteera profiletik haratago doan kontzeptura jauzi egingo dugu, etorkizuneko gizartean beharrezkoa izango den pertsonaren baloreetan oinarrituz**. Eta honako hau, bost bereizgarri desberdinetan jaso dira: euskalduna, barne sendotasuna duena, kooperatiboa, erabakitzaile-ekintzailea eta eraldatzailea. Bereizgarri eta ezaugarrien inpaktuen neurketen bidez ebaluatze sistema bat diseinatzeko doktoretza tesi bat abian jarri da.

Azpimarratzeko da pertsona-ereduaren ikuspuntua ez dagokiola pedagogian adituak diren ikastoletako gure profesionalei bakarrik, komunitatea osatzen dugun orori baizik: irakasle, ikasle, familia, erakunde,... eta marko berri honen zabalkuntzan eta ezarpenean dugu aurrera begirako erronkarik handiena.

**Iturria:** Bazatoz?


I·fuel
GASOLINERA

ALFA54
INMOBILIARIA
948562711 _ 679308443
WWW.ALFAINMO.COM
SAN JUAN 54. ALTSASU

Kaixo
Cafetería - Kafetegia
Jatetxea - Restaurante
948 46 91 24
GARCIA XIMENEZ, 20-22 · 31800, ALTSASU

ileapaindegia
Karmen
URDIAIN
948 562 665

KATALITURRI
BASO USTIAPENAK
EGUR SALMENTA
650 83 18 13

KATEALDE

KOLDO ARNANZ
ZUFIAURRE
ARTESKOLA
marrazketa eta
margoketa tailerra
adin guztietarako
arteskola
Nafarroa, 1 -1. esk. · Altsasu
948 46 83 91 · 699 33 58 40

# BAZATOZ? BAGOAZ!



El tema de las jornadas pedagógicas organizadas por la Federación de Ikastolas de Euskal Herria los días 16 y 17 de noviembre fue el libro “Bazatoz” en el que se recoge el nuevo marco educativo general de las ikastolas, fruto del proceso de reflexión llevado a cabo en la propia Federación los últimos dos años. Cabe destacar que entre los/as autores/a está Esther Garaialde, quien fue profesora y directora de Iñigo Aritza Ikastola.

Este nuevo marco general pedagógico recoge la forma de entender la educación de las ikastolas, el que serán un suelo común para todas las ikastolas. Después, mediante un proceso de reflexión, cada ikastola tendrá que adaptarlo a su contexto y reconstruir desde ahí su proyecto educativo.

Existen diferencias en comparación con el marco de 2009. Hace dos décadas, se percibía la falta de contenidos que estuvieran al servicio de las competencias. Sin embargo, hoy en día, se observa la necesidad de poner esas competencias mirando hacia el **modelo de persona**, es decir, dar el salto hacia **un concepto que va más allá del perfil de salida del alumnado, basado en los valores de la persona que la sociedad del futuro sea necesaria.** Y esto se se recoge en cinco distintivos diferencias: euskaldun, que tiene fortaleza interior, cooperativo, que decide-activista y transformador. Se ha puesto en marcha una tesis doctoral con el fin de diseñar un sistema de evaluación mediante la medición del impacto de los distintivos y las características.

Cabe destacar que la visión del modelo de persona no le compete solo a nuestros profesionales de las ikastolas que son expertos en pedagogía sino a todas las personas que conformamos la comunidad: profesorado, alumnado, las familias, las entidades,… y el mayor reto de cara a futuro que tenemos es la expansión y la implementación de dicho marco.

Larka
emakumea
gizona
face/insta: Larka Denda
san juan, 30 · 948 467 910 · altsasu · nafarroa

Materiales de Construcción
LASTADI
Eraikuntza materialak, zeramikak
Garraioak pluma kamioarekin
Iruñeko Etorbidea, 30 ALTSASU 948 564 185

Lemik Hotel
948 564 371 | 630 413 700
Foru Plaza, 12 | Altsasu
info@hotellemik.com | www.hotellemik.com

Liburunda Alsasua
Librería - Papelería
948 46 92 01 · liburunda@hotmail.es
C/Burunda, 6 · 31800 ALSASUA

Lezea taberna
Altsasu
674 988 390 · 848 412 544
Lezea · Altsasu

Logure
El diseño hecho descanso
Tapizera • Gortinak • Koltxoiak

LOTERIAS IMAZ
San Juan 16
ALTSASU
948 563 466

# IÑIGO ARITZA ETA ESKOLAZ KANPOKOEN MARKO INTEGRALA HIZKUNTZAREN ETA PERTSONAREN GARAPENAREN BEGIRADATIK

**Ikastolen Elkarteko Zirimola aisialdi taldeak gure irteera profila aintzat hartzen duen eta aisialdi hezitzailea oinarri duen aisialdiaren marko pedagogikoa jaso du. Aisialdi eredu honetan, hezkuntzan bezalaxe, ikaslea erdigunean jartzen da, haien ongizate emozionala bermatuz eta ikasleen interesa eta beharrak asetzeko kalitatezko aisialdirako momentuak eskaini. Marko horrek guztiak, aldi berean, hizkuntzaren erabilera gozamenetik eta atxikimendutik areagotzea helburu du gure hezkuntza proiektuaren hizkuntzaren trataera integralaren ildoak eta begirada jarraituz.**



Ikastola-esparruan, aisia-denborarekin lotura duen une zein gune orok, haur, nerabe eta gazteen heziketan eta haien gaitasun komunikatiboaren garapenean eragin zuzen-zuzena duela aztertu da azken urteotan EHIEn. Honela, norberaren nahi eta beharrak ikastola-komunitateko kideen arteko **elkarreraginean** gauzatzen direla argi ikusi da.

Haurrak, adinean gora doazen neurrian, mundua ikusteko, ulertzeko eta bertan bere burua kokatzeko trebatzen dira, norbere erabakien eta egiteko moduen erantzule zuzen bilakatuz pittinka. Beraz, **esperientzia ludikoen** bitartez barneko errepresentazio mentalak (sinboliko eta subjektiboak) objektibizatzen (ezagutza arrazionalak) ditu. Aldi berean, esperientzia horietatik pizten den **ziurgabetasunak, erronka bat suposatu eta barne jakin-mina pizten dio,** esperientzia berri bat objektibatzeko bulkada sortuz. Haur eta nerabeek norbere bizitza nondik eta nora eraiki nahi duten hautatzen dute eta bizipen horietatik, ikastola komunitatetik herrirako ibilbidearen arteko zubiaren lehen pausoak ematen dira.

"Etnoludismoa" deritzon kontzeptuaren arabera, ekintza ludikoen bitartez inguru soziala zer nolakoa den barneratzen dugu. Hortaz, esparru honi dagokion marko bat finkatzearen garrantzia ikusi da, eta esku-hartzeak planifikatzen hasiak gara, beti ere izaera informala ahaztu gabe. Izan ere, hori da ezinbesteko baldintza balio hezitzaileak eta hizkuntza-helburuak erdiesteko.

Honela, **ekintza ludikoen erakargarritasunak ekarriko du balio hezitzaileez jabetzea, euskalduntzea eta euskararen erabileran heztea.**

Ildo beretik, aipatu beharra dago, pertsona bakoitzak gaitasun ezberdinak (intrapertsonalak, interpertsonalak, adierapenezkoak, espazial-naturalak, artistikoak eta fisikoak) dauzkala, eta gaitasun konkretu batzuk besteak baino garatuago izango dituenez, **ezinbestekoa dela bakoitzaren hutsuneei erreparatzea inteligentzia integrala lortzeko.**

Gaitasun horiek ezagutzeaz gain, ezinbestean, esperientziaren bitartez objektibizatu behar dira, eta

marigorri
ehundenda lencería
San Juan, 2 ALTSASU
T. F. 948 562 153

montte
Mobiliario | Informática | Consumibles
www.montte.com

VISIERS
altzariakmuebles
Gaizka Visiers
626 562 550 • fax: 948 56 20 96
muebles-visiers@hotmail.com
facebook: Muebles Visiers Altzariak
San Juan, 39 • Altsasu-Alsasua • 31800 Navarra

NEXTMOVIL
INFORMATICA

horretarako, arestian esan bezala, **kalitatezko ekintza ludiko anitzak eta aberatsak bizi ditzaten bitartekaritzan eta baliabideetan jarri behar da fokoa, prozesu horren emaitzarekin esperientzia autotelikoa** (gozamena edo atsegina bilatzea helburu duen esperientzia) **izatea lortu nahi baita.**

Horregatik guztiarengatik, **ludikotasuna** pertsonaren garapen integralaren osagai garrantzitsua izaki, bizitzaren dimentsioetan azaltzen da, askotariko une eta guneetan. Horiek aztertzeak ikasleen, hezitzaileen, langileen, gurasoen, senideen, herriko elkarteen eta bestelakoen presentzia, esku-hartzea, tokia zer nolakoa izan beharko lukeen hausnartzera eta zehaztera garamatza, **aisia-esparruak, ludikoaz gain, komunitarioak, kooperatiboak eta publikoa-herritarrak izan daitezen.**

Iñigo Aritza Ikastolan, aipatutako markoak gure ikasleen garapen pertsonal nahiz konpetentzialetan duen garrantziaz kontzientte, marko horren begirada eta teorizazioa geure egiten ari gara formazio jarraiaren bitartez. Aitzitik, teoriatik praktikara jauzi egiteko pausuak ematen ari gara. Hartara, gure eskolaz kanpokoen (arratsaldeetako eskaintza) diseinuak, gelaz kanpoko ekintzak (atsedenaldiak, txangoak ...) eta baita egonaldiak marko horren baitan aurrikusten eta planifikatzen hasiak gara. Horretaz gain, HIZPROKO artezkaritza batzordearekin batera, hasiak gara asialdia euskalduntzeko begirada horretatik lanean. Horren adibide izan zen iazko buruhandien tailerra, besteak beste. Eta norabide beretik heldu da Aisiolarekin batera (EHIEko begirale eskola), gure ikastolako ikasle ohiei eta zuzendutako, baina herriari ere zabaldutako aisialdiko begirale titulua ikastolan bertan ateratzeko eskaintza. Izan ere, adituek argi adierazten dute **zenbat eta aniztasun handiagoa izan eta zenbat eta gehiago aldendu eredu homogenizatzaile eta globalizatzaileetatik, orduan eta harreman parekideagoak eraikiko direla eta, hala, hizkuntzaren erabilerari bultzada nabaria emango zaiola.**

Beraz, Ikastoletan eta Iñigo Aritza ikastolan ere, argi dugu gutxiagotutako hizkuntzen testuinguruan, aisialdi-guneak hezkuntza eta hizkuntz-baliabide gisa antolatzea ezinbestekoa dela. Komunitate gisa, gai honetan ere, egin dezagun elkarrekin bidea.

**Iturria:** EKE markoa (Zirimola-EHIE)

# MARCO INTEGRAL DE IÑIGO ARITZA Y EXTRAESCOLARES DESDE LA MIRADA DEL LENGUAJE Y EL DESARROLLO DE LA PERSONA

**El grupo de tiempo libre Zirimola de la Confederación de Ikastolas ha recibido un marco pedagógico de ocio que tiene en cuenta nuestro perfil de salida y que tiene como base el ocio educativo. En este modelo de ocio, al igual que en la educación, el alumno se sitúa en el centro, garantizando su bienestar emocional y ofreciendo momentos de ocio de calidad para satisfacer sus intereses y necesidades. Todo este marco pretende, a su vez, incrementar el uso de la lengua desde el disfrute y la adhesión siguiendo las directrices y la mirada del tratamiento integral de la lengua de nuestro proyecto educativo.**

En el ámbito escolar, en EHIE se ha considerado en los últimos años que todo momento y espacio relacionado con el tiempo de ocio tiene una incidencia directa en la educación de niños, adolescentes y jóvenes y en el desarrollo de su competencia comunicativa. Así, se ha constatado que las propias aspiraciones y necesidades se materializan en la interacción entre los miembros de la comunidad escolar.

A medida que la edad aumenta, los/las niños/as se entrenan para ver, comprender y situarse en el mundo, convirtiéndose en responsables directos de las propias decisiones y formas de hacer. Por tanto, a través de ex-



peluquería
nueva imagen
ileapaindegia
San Juan, 54 ALTSASU
948 467 074

OGI BERRI
667 03 39 15
San Juan, 2 ·31820 Altsasu

ORAA
GRÚAS Y TRANSPORTES
www.oraa.eu
948 562 105 · ALTSASU

Oin Klinika
Clínica del Pie
Nerea Argomaniz Saldaña
Podóloga [Col. 65]
Zelandi, 12 - Bajo 31800 Altsasu
[frente al Centro de Salud]
691 066 504

Sakanaoptika
optometria · audiometria · kontaktologia

periencias lúdicas objetiviza representaciones mentales internas (simbólicas y subjetivas) (conocimientos racionales). Al mismo tiempo, la incertidumbre que se despierta de estas experiencias supone un reto y despierta la curiosidad interna, provocando un impulso para objetivar una nueva experiencia. Los niños, niñas y adolescentes eligen de dónde y dónde quieren construir su propia vida y de esas vivencias, de la comunidad educativa se dan los primeros pasos del puente entre el itinerario hacia el municipio.

Según el concepto de "etnoludismo", a través de acciones lúdicas interiorizamos el entorno social. Por lo tanto, se ha visto la importancia de establecer un marco para este ámbito y se han empezado a planificar intervenciones, sin olvidar el carácter informal. Esta es la condición necesaria para alcanzar los valores educativos y los objetivos lingüísticos.

De este modo, el atractivo de las actividades lúdicas va a propiciar la adquisición de valores educativos, la euskaldunización y la educación en el uso del euskera.

En este sentido, hay que señalar que cada persona tiene diferentes capacidades (intrapersonales, interpersonales, expresivas, espaciales, artísticas y físicas), que van a tener unas capacidades concretas más desarrolladas que otras, por lo que es imprescindible fijarse en sus deficiencias para lograr una inteligencia integral.

Además de conocer estas capacidades, es imprescindible objetivarlas a través de la experiencia, y para ello, como ya se ha dicho, hay que poner el foco en la mediación y en los recursos para que vivan actividades lúdicas variadas y ricas de calidad, ya que con el resultado de este proceso se pretende tener una experiencia autotélica que busca el placer.

Por todo ello, al ser el lúdico un componente importante del desarrollo integral de la persona, se manifiesta en las dimensiones de la vida, en diferentes momentos y espacios. Su análisis nos lleva a reflexionar y concretar la presencia, la intervención, el lugar que debería tener el alumnado, los educadores, los trabajadores, los padres, los familiares, las asociaciones locales, etc., para que los espacios de ocio, además de lo lúdico, sean comunitarios, cooperativos y público-ciudadanos.

En Iñigo Aritza Ikastola, conscientes de la importancia de este marco en los desarrollos personales y



competenciales de nuestros alumnos, estamos asumiendo la mirada y la teorización de este marco a través de una formación continua. Por el contrario, estamos dando pasos para pasar de la teoría a la práctica. Así, hemos empezado a predecir y planificar los diseños de nuestras extraescolares (oferta de tardes), las actividades extraescolares (descansos, excursiones...) y las estancias en este marco. Además, junto con la Junta Rectora de HIZPRO, hemos empezado a trabajar desde esa perspectiva de euskaldunizar el ocio. Ejemplo de ello fue el taller de cabezudos del año pasado, entre otros. Y en la misma dirección ha llegado junto con Aisiola (escuela de monitores de EHIE) la oferta de sacar en la ikastola el título de monitor de tiempo libre dirigido a los/las antiguos /as alumnos/as de nuestra ikastola y al pueblo. De hecho, los expertos señalan claramente que cuanto mayor sea la diversidad y más se aleje de los modelos homogenizadores y globalizadores, más se construirán relaciones igualitarias y se dará un impulso claro al uso de la lengua.

Por lo tanto, también en las Ikastolas e Iñigo Aritza Ikastola, tenemos claro que en el contexto de las lenguas minorizadas, la organización de los espacios de ocio como recursos educativos y lingüísticos es imprescindible. Como comunidad, en este tema también hagamos el camino juntos.



















# ZER DA GURETZAT HEZKUNTZA INKLUSIBOA, EKITATEA ETA BIKAINTASUNA?

**Gaur egun maiz entzun eta irakurtzen ditugun hitzak dira hauek, askotan agertzen dira banaka edo bata bestearen ondoan baina agian ez ditugu denok berdin ulertzen. Hau dela eta, glosario txiki hau prestatu dugu.**

## INKLUSIOA

Hezkuntza inklusiboa da ikasle guztiek kalitateko hezkuntzarako sarbidea izatea bermatzen duen hezkuntza eta, horrez gain, ikasle guztiek bizitzarako konpetentziak ahalik eta gehien garatzea nahi duen hezkuntza.

Azpimarratu behar dugu haur guztiei ikuspegi inklusibotik modu pertsonalizatuan erantzuteko beharrezkoa dela ikasle guztientzat balio duten estrategiak sustatzea eta haien garapen pertsonal eta akademikoa mugatu dezaketen oztopoak ezabatzea.

Horretarako, aldatu behar dira hezkuntzaren egitura, funtzionamendua eta proposamen pedagogikoak. Esan dugun moduan, kontua da guztiek arrakasta izatea ikaskuntzan eta aukera-berdintasunean parte hartzea. Bestela esanda, oztopoak ezabatzeak esan nahi du eskola-testuingurua aldatu behar dela, ikasleek zailtasunik izan ez dezaten beren eskola-ingurunean moldatzeko eta hazteko.

Praktikan, horrek esan nahi du hezkuntzaren alo-
























rreko erantzunaren ardatza aldatu behar dela, ikasleen egoera pertsonaletatik eskolako ohiko testuingurura.

Azken batean, inklusioa irisgarritasunarekin eta parte-hartzearekin dago lotuta, eta hezkuntza inklusiboa da barne hartzen duena ikasleen desberdintasunarekiko errespetua eta onarpena, eta malgutasunez antolatzen dena aniztasunari erantzuteko eta guztientzako arrakasta-ikaskuntzak sustatzeko.

Honen harira, Nafar Gobernuak Foru Agindu berri bat atera du, Ikastetxeetako hezkuntza inklusioa arautzen duena (69/2023 FORU AGINDUA)

## EKITATEA

Pertsona guztien hezkuntzarako eskubidea bermatu behar da. Horrenbestez, ekitatean eta justizia sozialean oinarritutako planteamendu etikoaren arabera, hezkuntzak aukera berak eskaini behar ditu, inolako bazterketarik egin gabe (gaitasunak, kultura, etnia, erlijioa, generoa, sexua, etab.), eta desberdintasun ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta pertsonalak eraldatzeko betekizuna du.

Gizarteak beti dira askotarikoak; aldatu egiten dira, eta aniztasuna agertzeko modua ere aldatu egiten da. Horregatik, hezkuntza-sistemek erantzun malguak diseinatu behar dituzte, ikaskuntza, lorpen akademikoa eta inklusioa bermatzeko.

## BIKAINTASUNA

Bikaintasuna eta ekitatea aldi berean uztartu beharreko printzipioak dira.

Hezkuntza-errendimenduko maila aurreratuak lortu eta garatu nahi badira, guztien arrakasta sustatzen duten gizarte- eta hezkuntza-politikak behar dira; horretarako, testuinguru jakin batzuk sortzeko beharrezko baliabide tekniko, pertsonal eta antolakuntzakoak sustatu behar dira, ahultasuna edo zailtasuna sor dezaketen egoera pertsonalak gainditzeko.

# ¿QUÉ ES PARA NOSOTRAS Y NOSOTROS LA EDUCACIÓN INCLUSIVA, LA EQUIDAD Y LA EXCELENCIA?

**Son palabras que hoy en día escuchamos y leemos con frecuencia, que aparecen muchas veces de forma individual o junto a la otra, pero que quizá no todas y todos entendemos de la misma manera. Por este motivo, hemos preparado este pequeño glosario.**

## INCLUSIÓN

La educación inclusiva es la educación que garantiza el acceso de todo el alumnado a una educación de calidad y que pretende que todo el alumnado desarrolle al máximo sus competencias para la vida.

Debemos subrayar que para responder de forma personalizada a todos los niños y niñas desde una perspectiva inclusiva es necesario promover estrategias que sirvan a todo el alumnado y eliminar los obstáculos que pueden limitar su desarrollo personal y académico. Para ello es necesario cambiar la estructura, el funcionamiento y las pro-





ASPILAN
Xurgapen zentralizatua eta aireztapena
948 468 109 | Tejeria kalea, 31 | 31809 Ziordia
www.aspilan.com










RESTAURANTE
CLINKER
JATETXEA




EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
POL. ARKINORRUTI S/N
31809 - OLAZAGUTIA
NAVARRA
TEL. 948 56 32 53
egoki@ventanasegoki.com



puestas pedagógicas de la educación.

Como hemos dicho, se trata de que todo el alumnado tenga éxito en el aprendizaje y en la igualdad de oportunidades. En otras palabras, eliminar barreras implica cambiar el contexto escolar para que el alumnado no tenga dificultades para desenvolverse y crecer en su entorno escolar.

En la práctica, esto implica cambiar el eje de la respuesta educativa, desde las situaciones personales del alumnado al contexto escolar habitual. En definitiva, la inclusión está relacionada con la accesibilidad y la participación, siendo la educación inclusiva la que incluye el respeto y la aceptación de la diferencia del alumnado y se organiza con flexibilidad para responder a la diversidad y promover aprendizajes de éxito para todos y todas.

En este sentido, el Gobierno de Navarra ha elaborado una nueva Orden Foral por la que se regula la inclusión educativa de los centros escolares (ORDEN FORAL 69/2023).

## EQUIDAD

Hay que garantizar el derecho a la educación de todas las personas.

Por tanto, el planteamiento ético basado en la equidad y la justicia social obliga a la educación a ofrecer las mismas oportunidades, sin discriminación alguna (capacidades, cultura, etnia, religión, género, sexo, etc.) y a transformar las desigualdades económicas, sociales, culturales y personales.

Las sociedades siempre son diversas; cambian, y la forma de manifestarse la diversidad también cambia. Por ello, los sistemas educativos deben diseñar respuestas flexibles que garanticen el aprendizaje, el logro académico y la inclusión.

## EXCELENCIA

Excelencia y equidad son principios a conjugar.

La consecución y desarrollo de niveles avanzados de rendimiento educativo requiere políticas sociales y educativas que fomenten el éxito de todo el alumnado, promoviendo los recursos técnicos, personales y organizativos necesarios para crear contextos concretos que permitan superar situaciones personales que puedan generar vulnerabilidad o dificultad.



















HH 4



HH 5



LH 1



LH 2



LH 3



LH 4



LH 5



LH6



DBH 1



DBH 2



DBH 3



CBU



TG



asika industrial
· Zerbitzu industrialak
· Burni lanak
· Mantenimendua
· Estruktura metalikoak
· Soldadura
627 241 996 • admin@talleresasika.com • Pol. Ibarrea z.g. • 31800 Altsasu (Nafarroa)

ARAKAMA
Carnicería · Harategia
*Especialistas en carnes frescas del País*
*Estatuko haragi freskoetan espezialistak*
948 56 29 37 - Urbasa 13 - Altsasu

BOKATAK • PINTXOAK
SARERA KONEKTATU ZAITEZ
ARKANGOA
ALTSASU
GAUEKO MARTXA

AR
Aroa Ramos
CENTRO DE ESTÉTICA
609 516 227
C/Intxaurrondo 4, bajo · Alsasua

Asesoría · Aholkularitza
AG GOIKOETXEA
948 563 352
San Juan, 2 · 31800 Altsasu
asesoria@asesoriagoikoetxea.es





































EUSKARALDIA

HITZEZ
EKITEKO
GARAIA







EZ DUGU

INOR EZ DA
BAZTERTUA
IZANGO!







-Iturgintza eta berogintza instalazio eta mentenimendua

-Kalderen mantenimendu eta konponketa

-Biomasa (egurra, pelleta)

GALARTXA, S.L.

FONTANERIA
CALEFACCION Y GAS

Utzubar industrialdea 18, 31839 Arbizu (Nafarroa)

Tel. 948460027

Emaila: galartxa@galartxa.com

Web gunea: www.galartxa.com

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA